



ORIOK OUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarra eratzeko bilkura

EGUNA: 2019ko ekainaren 15a, larunbata

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 09:00 **BUKATZEKO ORDUA:** 09:15

BERTARATUTAKO ZINEGOTZI HAUTATUAK:

KOALIZIO POLITIKOA: EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)

- Anuska Esnal Oliden
- Ainara Munduate Iguaran
- Xabier Ibarguren Azkue
- Beñat Solaberrieta Albizu
- Bakarne Oliden Albeniz
- Bittor Andres Alcorta

ALDERDI POLITIKOA: EUZKO ALDERDI JELTZALEA (EAJ)

- Lourdes Salsamendi Goñi
- Andoni Torres Fernandez
- Jon Basurko Sarasua
- Amaia Gozategi Urbietta
- Jose Javier Gomez de Segura Arce

ALDERDI POLITIKOA: PARTIDO SOCIALISTA DE EUSKADI – EUSKADIKO EZKERRA (PSE-EE-PSOE)

- Ana Priede Merchan

HAUTESLEEN TALDEA: ORAIN: ORIOKO AUKERA INDEPENDENTEA

- Jose Angel Iparragirre Alberdi

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi



Gai-zerrenda

- 1.- Adin-mahaia eratzea.
- 2.- Udalbatzarra eratzea.
- 3.- Alkatea aukeratzea.

Esan-eginak

1.- ADIN-MAHAIA ERATZEA.

Ekainaren 19ko 5/1985 lege organikoaren 195.2 artikulua dioenari jarraituz, zinegotzi-agiriak idazkaritzari eman ondoren, bertaratutako zinegotzietan zein den gazteena eta zein zaharrena aztertu da, bi zinegotzi horiek adin-mahaia osatu dezaten, udal-idazkariarekin batera. Adin-mahaia, beraz, honela osatuta geratzen da:

- Mahaiburua: Jose Javier Gomez de Segura Arce, 61 urte, zinegotzi hautatu zaharrena.
- Xabier Ibarguren Azkue, 28 urte, zinegotzi hautatu gazteena.
- Idazkaria: Jon Carrera Jauregi, bilkura honetako idazkari ere badena.

2.- UDALBATZARRA ERATZEA.

Adin-mahaiak zinegotzi-agiriak aztertu ditu, eta baita eskualdeko hauteskunde-batzordeak udaletxera bidalitako ziurtagiriak ere, zinegotzi-agiriak eta ziurtagiriak bat datozela frogatzeko.

Horren ondoren, zinegotziek zin egin edo agindu dute zintzo beteko dituztela karguari dagozkion obligazioak, eta konstituzioa zaindu eta zainaraziko dutela estatuaren arau nagusitzat.

Horrenbestez, zinegotzi guztien gehiengo osoa bilkuran dagoela, adin-mahaiak eratutzat jo du udalbatzarra.

Jarraian, idazkariak kuxako kontaketa-aren agiria, Udalak dirutan nahiz baloretan dituen balioen ziurtagiriak eta ondarearen inbentarioa aurkeztu dizkio udalbatzarrari, zinegotziek aztertu dezaten.



3.- ALKATEA AUKERATZEA.

Ekainaren 19ko 5/1985 lege organikoaren 196. artikuluari jarraituz, adin-mahaiak alkatea aukeratzeko baldintzak gogorarazi ditu idazkariak:

- Zinegotzi diren zerrendaburu guztiak dira hautagai.
- Zinegotzi hautatu guztiak dira hautesle.
- Txartel sekretu bidez egingo da aukeraketa.
- Botoen legezko gehiengo absolutua lortzen duen hautagaia izango da hautatua; beraz, gutxienez, 7 boto lortu beharko dira.
- Inork ez badu bozketa horretan gehiengo absolutua lortzen, automatikoki aldarrikatuko da alkate hauteskundeetan boto-kopururik handiena lortu duen zerrendako buru den zinegotzi hautatua. Berdinketa izanez gero, bozketa bidez erabakiko da.

Horren berri eman ondoren eta gaiari buruz idazkaritzan dauden aurrekaritan oinarrituz, alkategai izendatzen dira ondoko zinegotzi hautatuak:

- Anuska Esnal Oliden, EH BILDU koalizioko zerrendaburua.
- Lourdes Salsamendi Goñi, EAJ alderdi politikoko zerrendaburua.
- Ana Priede Merchan, PSE-EE-PSOE alderdi politikoko zerrendaburua.
- Jose Angel Iparragirre Alberdi, ORAIN hautesleen taldeko zerrendaburua.

Idazkariak txartel zuria ematen dio hautesle bakoitzari, adieraziz bertan jarri behar dituela alkate izateko bere botoa ematen dion zinegotziaren izen-deiturak, eta txartela tolestuta entregatzeko.

Behin txartel guztiak jaso ondoren, botoen kontaketa egiten da eta idazkariak ozen irakurtzen ditu alkate izateko txartel bakoitzean proposatu den zinegotziaren izen-deiturak. Kontaketaren emaitza honako hau da:

- Anuska Esnal Oliden, 6 boto.
- Lourdes Salsamendi Goñi, 5 boto.
- Abstentzio-boto 1
- Boto zuri 1

Idazkariak bertan daudenei txartel guztiak eta egindako eragiketa aritmetikoa egiaztatzeko aukera ematen die. Ondoren, txartelak puskatu egiten dira.

Bozketaren emaitza ikusita, Anuska Esnal Oliden zinegotzi hautagaia aldarrikatzen da Udal honetako alkate, hauteskundeetan boto-kopururik handiena lortu duen zerrendako burua delako.



Jarraian, Anuska Esnal Oliden zinegotzi hautatuak adierazten du onartu egiten duela Udaleko alkate-kargua eta, hauteskunde-legeriak ezarritako formularen arabera promesa egin ondoren, karguaren jabetza hartzen du udalbatzarraren aurrean. Kargua edukitzeak barnean hartzen ditu indarrean dauden xedapenek ematen dizkioten eskumen, eskubide eta obligazio guztiak.

Ondoren, idazkariak udalbatzarrari adierazten dio —eta hau jakinaren gainean gelditzen da— zinegotzi hautatuetatik zeintzuk egin duten interesen eta jardueren aitorpena; honako hauek dira:

- Anuska Esnal Oliden
- Ainara Munduate Iguaran
- Xabier Ibarguren Azkue
- Beñat Solaberrieta Albizu
- Bakarne Oliden Albeniz
- Bittor Andres Alcorta
- Lourdes Salsamendi Goñi
- Andoni Torres Fernandez
- Jon Basurko Sarasua
- Amaia Gozategi Urbietta
- Jose Javier Gomez de Segura Arce
- Ana Priede Merchan
- Jose Angel Iparragirre Alberdi

Era berean, idazkariak honako honen berri ematen dio udalbatzarrari: zinegotzi hautatu guztiek egin dutela dagokien bateraezintasun arrazoien aitorpena.

Jakinazten du, baita ere, aitorpen horiek inskribatuak izan direla horretarako prestatu diren erregistroetan.

Orain arteko alkateak, Jose Angel Zaldia Iparragirrek, aginte-makila ematen dio Anuska Esnal Oliden alkate berriari eta zorionak ematen dizkio alkate izendatua izanagatik

Segidan, alkate berriak hartzen du hitza eta honako hau adierazten du: eskertu nahi diola, orokorrean, Orioko herriari —eta, bereziki, bertaratutakoei— alkate izendatu izana, eta agintzen du arduraz eta erantzukizunez beteko duela alkate-kargua.

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,